

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko maiatzaren 17a. IX. urtea. 2.350. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Larraulgo eskola txikiaren eskaerari babesa eman dio Martin Garitanok

Larraulgo guraso elkartearekin eta udalarekin bat eginez, 12 urtera arteko hezkuntza zerbitzua ezartzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari

Ahaldun nagusiak eta Zigor Etxeburua Euskara zuzendariak Larraulgo eskola bisitatu dute; «herri txikien bihotza» eskolak direla esan du Garitanok **o4**



Garitano eta Etxeburua, Larraulgo alkatearekin eta eskolako ikasle, irakasle eta gurasoekin, atzo. E.MAIZ

Asier Arandia eta Juantxo Arakama
Glaukoma Sound Systemeko kideak

«Zazpi abestik osatzen dute diskoa; biniloan argitaratu dugu, baina barruan CDa ere badago»

Glaukoma Sound System taldeak izen bereko lana kaleratu du eta bihar aurkeztuko du Tolosako Bonberenean, 22:30etik aurrera **o3**

Herrirak Tolosaldeko eta Leitzaldeko plazak bete nahi ditu larunbatean

‘Goazen plazara!’ ekimenaren barruan, elkarretaratzeak eta herri bazkariak egingo dituzte hainbat herritan euskal preso eta iheslarien eskubideen aldarria zabaltzeko **o5**

Askotariko ekitaldiak, biharko Museoen Nazioarteko Eguna dela eta

Bihar eta etzi musika, lehiaketak, bisita gidatuak, kalejirak eta abar antolatuta dituzte Tolosan, Abaltzisketan, Ibarren eta Villabonan, ospakizun egunaren harira **o2**



Bihar eta etziko ekitaldien berri eman zuten atzo, Topic zentroan. I.G.L

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Irudia ◊ Alegia eta Tolosa**IKASLEEN EKARPENA AGENDA 21 EKIMENARI**

Escola agenda 21 egitasmoan ikasturte honetan biodibertsitatea lantzen ari dira eskualdeko eskoletan. Hala, ikasleek egindako lana, hartutako konpromisoak eta udal agintariari egindako proposame-

nak aurkezten ari dira egun hauetan hainbat herritan. Esaterako, astelehenean Alegian egin zuten aurkezpena (ezkerreko argazkia) eta atzo, Tolosan izan ziren ikasleak (eskuineko argazkia). HITZA/1.G.L.

✉ **Gutuna****Etorkizuna eta erantzukizuna**

Hiru eguneko tartean jakin dugu, batetik, Europako Parlamentua «zabortegiak eta erraustegiak kentzearen alde» dagoela (<http://www.gipuzkoaz.com/zerozabor/?p=3150>) eta, bestetik, Ingurumen Ministerioaren iritzi «eredugarria» dela Usurbilgo «atez atekoa» (<http://www.gipuzkoaz.com/zerozabor/?p=3104>). Halere, XXI. mendean sartuta gauden honetan, EAJK jarraera atzerakoa erakusten du, osasunarekin eta ingurumenarekin solidarioa eta aurrerakoa den ikuspuntutik. EAJK ondo asko badaki, hondakin gutxiago sortzeko politika aktiboa aurrera eramateaz gainera, bi aukera besterik ez daukela: edo arduraz jokatu eta planteatu hondakinak nahitaez gaika sailkatu, bildu eta tratatu behar direla; edo hondakinak bere horretan erraustegira eraman, horek gure osasunari eta ingurumenari eragin diezaikekeen kaltearekin. Pentsatzen dugu ia inork ez daukala zalantzarik aukera onena zein den. Beraz, hau da kontua: hondakinak gaika sailkatu egin behar direla berrerabiltzeko, birziklatzeko eta merkatu balio bat emateko lehengai bezala; eta ez, aldi, kudeatu zabortegi batean edo erraustegi batean ezabatu behar den zabor gisara.

Gainera, edozein gizarte moderotatua, hondakinak gaikako bilketa gora doan balore bat da. Gure seme-alaben ikastetxeek beren hezkuntza curriculumetan eta programetan garrantzia handia ematen diete kontsumo arduratsuari eta hondakinak birziklatze eta berrerabiltzeari. Hori bada gure gazteentzat nahi dugun heziketa, ezin da ulertu nola politikari batzuek defendatzen dituzten balore horien kontrako politikak. Ezin da ulertu nola EAJK segitzen dituen babesten sufritzen ari garen krisi ekonomiko basati honetara eraman gaituzten politikak.

Kontsulatarekin demagogia egitea erraza da, baina EAJren aldetik etorrita, ez da batere sinesgarria. EAJK kontsulatu al du erraustegiaren gainean? Kutsatzen jarraitzeko aukera ezin zaio eman inori, zergak ez ordaintzeko aukera ematen ez zaion bezalaxe. Hori badaki EAJK, baina zaborren aitzakiarekin zalantzan jarri nahi du udal ordezkari gehiengoak aurrera eraman nahi dituen eztabaida lasaia eta gizarte mailako elkar aditzea. Gehiengo sozial, politiko eta sindikalak exijitzen digun aldaketa gestioztzeko aukera eta erantzukizuna daukagu. Eta ez dugu etsiko. Ezker Abertzaleak islatzen duen gaitasun politiko eta soziala erabat konprometituta dago aldaketa horrekin. Hamaika arrazoi baditugu esateko bide onetik goazela.

■ **Silvana Ostiza, Koldo Maiz eta beste 31 sinatzaile.** Tolosa.

Museoak, merkataritza eta kultur aniztasuna bat eginik, asteburuan

Bihar Museoen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatatu dituzte eskualdean

Imanol Garcia Landa

Museoen Nazioarteko Eguna ostiralean ospatzen dela baliatuz, hainbat eragilek bat egin dute egun horretan eta larunbatean hainbat ekitaldi antolatzeko eskualdeko lau herritan. Atzo aurkeztu zuten ekimena Topic museoak, Gorrotxategi museoak, Mariren Zuhaiztia abentura parkeak, eta Tolosaldea Garatzeneko turismo, merkataritza eta migrazio sailek, Ibarako eta Villabonako merkataritza elkarteekin batera.

Antolatzaleek ekitaldiak antolatzeko izan den elkarlana eta kooperazioa nabarmendu zuten. Iaz, Turismo mahaia bultzatuta, Museoen Nazioarteko Egunean ate irekien jardunaldian egin zuten. «Arrakastatsua izan zen», azaldu zuten antolatzaleek, eta ekimen horri Gau Zuria ospatzea-

rena elkartu zaio aurtengoan. Hala, Topic museoan, Gorrotxategi Museoan dagoen Letxuga kalean eta Mariren Zuhaiztian musika izango da ostiral gauean. Bestalde, Topic-eko Ambigu tabernan edari bat hartzeko baleak banatuko dituzte Botarri jatetxeak, Illargi tabernak, Fronton jatetxeak eta Solana 4 tabernak.

Aurreko ekimenei beste batzuk ere lotu zaizkie. Turismo bulegoak, esaterako, Tolosako Alde Zaharra eta Santa Maria parrokia zuziekkin bisitatzeko aukera emango du. Bere aldetik, migratio sailak antolatuta, Euskal Herria plazan hainbat taldek parte hartuko dute: Guardabarranco dantza taldea Nikaragutatik, Flor de Jara abesbatza Extremaduratik, Ibarako Alurr dantza taldea, Errumaniako musikariak, Mundialak Gara Euskal Herriko etorkinen euskarazko taldea eta DOMAN Senegalgo perkusio taldea. Izan ere, astelehenean, hilak 21, Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna da.

Larunbatean merkataritza izango da protagonista. Ibarren zein Villabonan komertzioek kalera aterako dituzte euren pro-

↓ **Egitaraua****MAIATZAK 18, OSTIRALA****TOLOSA**

- **11:00-13:00 eta 16:00-20:00.** Topic zentroan ate irekiak eta argazki lehiaketa.
- **10:00etan eta 18:00etan.** Gorrotxategi museoan bisita gidatua eta txokolate dastatzea doan.
- **20:00-23:00.** Letxuga kalean, Gorrotxategi txokolate txuriaren dastatzea eta musika emanaldia.
- **20:00-21:00.** Euskal Herria plazan, Tolosaldeko musika eta dantza antizak.
- **21:00-01:00.** Topic zentroan, musika emanaldiak eta Ambigu taberna irekita.
- **22:30-00:00.** Bisita gidatua zuziekkin: Santa Maria parrokia eta Alde Zaharra.

duktuak, musikariak jarriko dute giroa, eta taberneak ere parte hartuko dute pintxo poteoekin.

Ekitaldien berri ematen duen kartela Urrietako Salesiarrak ikastetxeko ikasleek egindakoa da, eta eurek egin dute diptikoa ere. Topic zentroko Mariona mas-

ABALTZISKETA

■ **22:00-00:00.** Larraitzeko Mariren Zuhaiztia argizatuta eta irekita, eta trikitilariak giro-tua.

MAIATZAK 19, LARUNBATA**IBARRA**

- **10:30-14:30.** Merkataritza kalean.
- **11:30-12:30.** Dultzaineroen kalejira.
- **12:00-15:00.** Pintxo Potea.
- **12:30-13:30.** Senegalgo musika eta dantza.

VILLABONA

- **11:00-14:00.** Merkataritza kalean.
- **11:30-14:30.** Musika emanaldiak.
- **12:00-15:00.** Pintxo Potea.

kotan oinarritu dira kartela egiteko, eta antolatzaleen zoriak jaso dituzte egindako lanagatik.

Horrez gain, Topic zentroak argazki lehiaketa antolatu du. Adinaren arabera hiru talde egin dituzte eta ostiralean bertan Topic zentroan ateratako argazkiak

Iragarki laburrak**ALOKAIRUA**

■ **Baratze ludikoak.** Landu zure baratzeak. Dagoeneko prest dagoen lur sail bat eskaintzen dizugu zuk baratzeak lantzen goza dezagun. Hilean 35 euro edo gehiagoren truke, 50, 60 edo 120 metro karratuko lur saila aloka dezakezu Tolosatik

hamar minutura. Zure baratze ekologikoa egiten aholkatu eta lagunduko dizugu, laborantza ekologikoaren aldeko apustua egiten baitugu. Animatu! Eskuratu duzu naturaz gozatzeko eta baratzean aritzeko aukera. Kontaktatu-telefonoa: 687 122658.

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Itzea Urkizu

Glaukoma Sound System musika taldeko baxu jotzailea eta abeslaria dira, Asier Arandia (Tolosa, 1988) eta Juantxo Arakama (Tolosa, 1989), hurrenez hurren. Taldearen izen bera daraman diskoa grabatu berri dute Bonberenea Ekintzak zigitupean, eta bihar aurkeztuko dute beren lehen lana, Bonbereneako oholtzan, 22:30etik aurrera.

Bihar diskoa berriaren aurkezpen kontzertua izango duzue. Eguna noiz iritsiko zain al zaudete? Urduritasunik?

Asier Arandia: Gogoia dugu kontzerturako, bai.

Juantxo Arakama: Bai, gogotsu gaude. Oraintxe bertan urduritasunik ez dugu, baina bihar beste kontu bat izango da... Diskoa grabatu ondoren, bospasei kontzertu eskaini ditugu jada, eta errepertorioa-eta nahiko argi ditugu kontzerturako.

Nolakoa izan da grabaketa prozesua? Noiz sartu zineten estudioan?

A. A.: Martxoko lehen egunetan hasi ginen grabatzen.

J. A.: Martxoko lehen astean grabatu genuen, eta... noiz bidali genuen guztia?

A. A.: Apirileko lehen astean guztia bidalita genuen jada.

J. A.: Bai, hilabetean egin dugu guztia: grabaketa, nahasketa, masterizazioa...

Bonberenean bertan egin duzue guztia, ezta?

J. A.: Bai. Karlos Osinaga *Trapekin* egin dugu guztia. Hilabetez aritu gara diskarekin, eta egia esan luze samarra egin zaigu. Normala da, lehen diska izanda; kontu hauetan esperientzia handiegirik ere ez dugu.

Pasa den udan argitaratutako *Sputnik 11* bilduman parte hartu zenuten. Horrez gain, maketarik edo antzekorik ba al duzue aurretik?

J. A.: Ez, ezer ez genuen grabatu horren aurretik. Izaskun auzoko festetako abestia grabatu genuen, eta *Sputnik 11*ko bi kantuak ere bai, gero. Horrek ez zigun sekulako esperientziarik eman, baina estudioara sartzerakoan, ezagunagoa egin zaigu guztia.

Eta nola sortu zen Glaukoma Sound System? Duela zenbat urte?

J. A.: Ba gure lehen kontzertua



ITZEA URKIZU

Asier Arandia eta Juantxo Arakama Glaukoma Sound System taldeko kideak

Hilabetez Bonbereneako grabaketa estudioan lanean aritu eta gero, Glaukoma Sound System musika taldeak bihar gauetan aurkeztuko du taldearen izen bera hartu duen lehen lana, Bonberenean bertan.

«Reggae musikarekin sekulako festa sor daitekeela erakutsi nahi dugu»

duela bi urte izan zen hain zuzen, maiatzaren 15ean. Otsabiko lokalean eskaini genuen saio hura, eta egia esan, gutxi prestatutako kontzertu bat izan zen. Esperimentuak funtzionatu zuen, hala ere. Nola sortu zen hura? Nik bi mutil donostiar ezagutzen nituen, gitarra jotzaileak biak, eta batek nirekin ikasi zuen batxilergoa. Beste talde batean aritzen ziren, eta reggae-a ez zen beste estilo batean aritzen ziren arren, gustuko zuten. Pixkana, abesti pare batekin proba egiten hasi ginen. Noizean behin geratzen ginen, edo kallean abesten genuen. Eta behin, Arandiarekin geratu ginen, baxuarekin ere proba egiteko. Irungo bateria jotzaile batekin ere hitz

egin genuen azkenean, eta horrela sortu zen taldea.

Eta maiz elkartzan al zarete entsegua egiteko?

A. A.: Hasiera hartan, lehenengo kontzertua baino bi hilabete lehenago egin genuen gure lehen entsegua.

J. A.: Orain, astean behin edo bitan elkartzan gara. Kontzerturik ez dugun astean bi entsegu-edo egiten ditugu, eta bestela, behin elkartzan gara.

Zuen lehen lanak taldearen izen bera hartu du. Zenbat abesti entzun ahal izango dira diskoan?

J. A.: Zazpi abestik osatzen dute diskoa. LP formatuan edo biniloan argitaratuko dugu. Biniloak muga hori du, 42 minutukoa, eta

hortik dator zazpi kantu sartzearena. Hiru abesti erabat berriak dira, eta besteak kontzertuetan jo izan ditugu; guretzat osoa diren zazpi kantuak aukeratu ditugu, eta modu naturalean aukeratu, gainera.

Eta abestiak sortze horretan, gaiak aukeratu egiten al dituzue, adibidez, aldarrikapen bat egiteko?

J. A.: Diskoa honetan, aldarrikapena ez da, agian, hemen ikustera ohituak gauden aldarrikapen horren antzekoa; ez dago panfleto-aldarrikapenik edo aldarrikapen propagandistikoeirik. Hala ere, lanak badu aldarrikapenetik ere. Adibidez, marihuanaren kontua beti aipatzen dugu; sexuen arteko desberdintasunak ere hizpide

dira; komunikabideak ere salatzen ditugu diskoan; eskopetariaren kontua ere salatzen dugu; gure gizarteak dituen tradizioei buruz ere ariko da diskoa, baina tradizio moduan ulertuta, ez ohitura moduan. Aldarrikapen politiko eta sozialaz haratago ere izango da besterik diskan, bide poetikoagoetatik doana.

Nola definituko zenukete egiten duzun musika estiloa?

J. A.: Rap-reggae egiten dugu, argi eta garbi.

J. A.: Gero eta garbiago, gainera. Duela urte bete guzua bera galde-tuz gero, arazoa izango genituen definitzeko. Baina uste dut, orain guztiok argi dugula nondik goazen.

Orain arte Tolosan eskaini izan dituzuen kontzertuetan, harrera ona izan duzue. Bihar ere erantzun ona espero duzue, ezta?

J. A.: Bai, ea zorterik dugun.

A. A.: Gainera, etxean izanda, lagun eta ezagun guztiak etorriko direla badakigu.

J. A.: Noski. Bonberenea beti da Bonberenea, eta azken finean, Tolosan joko dugu. Egia da, honi dagokionez zorte handia izan dugula. Martxoaz geroztik ez dugu hemen emanaldirik eskaini, eta orain diskoaren kontuarekin, ea jendea bertaraten den.

Hemendik kanpo ere aritzen zarete, ordea. Agenda bete al du taldeak?

J. A.: Udari begira, oraindik ez dakigu ondoegi zer etorriko zaigun.

A. A.: Orain ibili gara hemendik kanpo kontzertuak eskainiz, apirilean eta orain.

J. A.: Orain, biharko kontzertua eta datorren astean Villabonako Onddo Rock-en eskainiko duguna ditugu. Ekainean geratu egingo gara, eta gero ikusiko dugu uda nola etortzen den.

Bihar, beraz, diska eskuragarri izango da Bonberenean bertan.

J. A.: Bai, 10 euroren truke biniloa eta CDa eskainiko ditugu, bai baitakigu jende guztiak ez duela LPa erreproduzitzeko aparailurik. Eta kontzertuak luzerako emango duela nabarmendu nahi dugu. Gure asmoa hori da; musika estilo honi zerbaitek aporteratu badiezokegu, hori erakustea, bereziki Tolosan. Reggae musikarekin sekulako festa sor daitekeela erakutsi nahi dugu.

Txapin Festa egingo dute gazteek, larunbatean

Rebeka Calvo

Tolosako gazteek bosgarren urtez egingo dute Txapin Festa larunbat honetan. Beti bezala egun guztioko egitaraua prestatu dute, eta urteroko moduan kalea bere egiteko asmoa dute.

Eguna kalejirarekin hasiko dute, eta duela pare bat urte berreskuratutako baltsa jaitziera ere egingo dute aurtengoan.

Bazkaria Plaza Berrian izango da txartelak erosi daitezke jada Raku, Kikara eta Denak tabernetan, 12 euroren truke.

Gazteak, jaiaren zati

Jaiaren helburua ez da soilik gazteak elkartzu eta parranda egitea, Manex Izagirre antolatzaileetako batek azaldu duenez: «Helburua ez da festa bat antolatzea, gero jendea bazkaltzera joateko. Jen-

deak bere burua jai horretako zati sentitzea nahi dugu, eta neurri batean orain arteko edizioetan lortu dugula esan dezakegu».

Jaiak herri kutsua du eta herriko gazte guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera: «Gazteok gazte-ontzat antolatutako jaiak izango da, euskalduna, parekidea, parte hartzailea eta hainbat aldarrikapen kaleratuko dituen. Festa giroa sortuko dugu Tolosan».

↓ Egitaraua**MAIATZAREN 19AN, LARUNBATA**

- **11:00.** Kalejira Berazubiko lokaletatik hasita.
- **12:30.** Baltsa jaitziera Zerkausiko ontziratokiraino.
- **14:30.** Herri bazkaria Plaza Berrian.

Ondoren, bertsolariak eta jokoak izango dira.

- **21:00.** Aftaltzeko geldialdia egingo dute.
- **23:00.** Karma eta Kantaflor taldearen kontzertuak.
- **00:30.** Kikara, Eguzki, Iruña, Bikutz eta Raku tabernetan DJak izango dira.

Martin Garitano ahaldun nagusiak bat egin du Larraulgo eskola txikiarekin

Larraulgo eskola txikiaren egoeraren berri jaso dute udal ordezkari eta guraso elkarteko kideen eskutik

Eneritz Maiz Larraul

Larraulgo herriak Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiaren eta Zigor Etxeburua Euskara zuzendariaren bisita izan zuen, atzo. Bertatik bertara, herriko eskola txikiaren egoeraren berri jaso nahi izan zuten. Martin Garitanok Larraulgo eskolari bere babesa adierazi zion, eta «Gipuzkoak herri txiki asko ditu, eta beharrezkoa da hauek garatzea», esan zuen. «Eskolak dira herri hauen bihotza», gaineratu zuen. Horregatik, «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza arduradunei eskatzen diet Larraulen 12 urtera arteko zerbitzua eman dezatela», esan zuen.

Udaletxe aurrean harrera egin ostean, lehenik eta behin, haur eskola eta eskola txikia ezagutu zituzten. Bertako haurrekin eta irakasleekin hitz egiteko aukera izan zuten. Nola lan egiten duten, eta zein arazo dituzten argitu zituzten, eta jarraian, bilera bat izan zuten eskolaren egoeraz.

Xabier Mujika Larraulgo alkateak, ahaldun nagusiak bileran azalduko babesa eta Larraulgo eskola sustatzeko konpromisoa eskertu zituen. «Egun 8 urtera arteko eskola zerbitzua izanagatik,



Bilera egin ostean, ordezkari guztiek adierazpenak egin zituzten, udaletxean. E.MAIZ



Herriko ikasleekin hitz egiteko aukera izan zuen Martin Garitanok. E.MAIZ

udalak eta guraso elkarteak legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztenez, 12 urte arteko zerbitzua herrian izan bitartean lanean jarraituko dugu», adierazi zuen.

Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikietako Gurasoen Koordinakundeko lehendakariak, Gipuzkoako eskola txikiak foru aldundiaren babesa sentitzen dutela nabarmendu zuen, eta eskola txikiak herrian duten garrantzia adierazi zuen: «Heziketa

emateaz gain, herri proiektua dira, eta herri txikiak bizi iraupenerako elementu nagusi dira».

Zigor Etxeburua, berriz, herri txikiak euskarari egiten dioten ekarpena azpimarratu nahi izan zuen: «Herri eta eskola txikietan egiten ari diren ahalegina guztiz funtsezkoa da euskararen jarraitpenerako eta euskarak bizirik irauteko».

Murgil Guraso Elkartearen izean, Estitxu Eizagirrek hitz egin zuen: «Eusko Jaurlaritzak Eskola

tolosaldea.hitza.info



tolosaldea.hitza.info-n ikus daitekeen bideoaren QR kodea.

Txikiak Festa egiteko urteroko eman izan duen diru laguntza aurten ukatu egin du, eta kolokan jarri zuen aurtengo festa. Baina, Gipuzkoako Aldundiaren, urteroko beste hainbat eragileren, eta Asteasuko zein Larraulgo enpresen babesagatik posible izango da ekainaren 3ko festa, eta hau 25. urteurrenak merezi bezalako izatea».

Zortzi urte arteko zerbitzua dute herrian, eta ikasturte berria hasi aurretik, Hezkuntza sailarekin bildu nahi dute, zerbitzua beste ikasturte batez luzatzeko. Hamabi urtera arteko lortu bitartean lanean jarraituko dute. Egun 15 ikasle ditu Larraulgo eskolak.

→ Laburrak

Jubilatuena taberna inauguratuko dute, bihar

ANOETA › Jubilatuena egoitzaren taberna bihar inauguratuko dute, 18:00etatik 20:00etara. Lehiaketa publikoa egin ondoren, Maialen Barandiaran Zubillaga andoaindarrak kudeatuko du hemendik aurrera taberna. Udaletik herritar guztiak gonbidatu dituzte inaugurazio ekitaldira. Bertaratzen denarentzat pintxoak egongo dira.

Herri kirolen eta apustuaren inguruko hitzaldia, etzi

IKAZTEGIETA › Kutxa Gizarte Ekintzak hitzaldia antolatu du udaletxeko balioanitzeko gelan, bihar, 17:00etan. Jose Antonio Garatek *Herri kirolak eta apustuak* gaiaren inguruan hitz egingo du. Hitzaldian Euskal Herriko apusturik ospetsuenak gogoratuko ditu, besteak beste. Ordu t'erdiko iraupena izango du solasaldiak.

Festa batzordea osatzeko bilera egingo dute

AMEZKETA › Herriko festak antolatzen hasteko asmoa dauka udalak. Horregatik, «aurtengo Bartolome Deunaren jaiak antolatzeko asmoarekin, hilaren 22an, festa batzordea osatzeko bilera egingo dugu». Batzarra 19:00etan hasiko da, Amezetako udaletxeko erabileran antzeko gelan. Udaletik herritarrek eta herriko elkarte guztiak gonbidatu dituzte batzarrera.

Alegiak Herriarteko kanporaketari buelta eman nahi dio

E.Maiz Alegia

Herriarteko pilota txapelketa aurrera doa, eta igandean, Alegiako pilotarien txanda izango da. Urretxuko pilotariak hartuko dituzte etxean. Elordi pilotalekuan jokatu dituzte hiru pilota partidak

11:00etan hasita. Pasa den astean, Urretxun jokatu zuten, eta hiru partidetatik bat irabazi zuten alegiarrek.

Herriarteko txapelketan aurrera egin nahi badute behintzat, igandean, kanporaketari buelta ematen ahalegindu beharko dira.

Partida gehien irabazten dituen herriak hurrengo kanporaketa Bidegoian izango du zain.

Pasa den astean Urretxun jokatu zituzten partidetan, lehenengoan 22 eta 9 galdu ostean, bigarren partida erraz irabazi zuten alegiarrek, urretxuarrak 7 tanto-

tan utziz. Azken eta hirugarren partidetan, berriz, 22 eta 12 galdu zuten alegiarrek.

Udaberriko txapelketa

Bihar jokatuko dituzte Udaberri txapelketako partidak Alegia, Alto eta Ikaztegiako frontoietan.

Altzon, 18:30ean hasiko dira, eta Alegiako eta Ikaztegiako partidak 19:00etatik aurrera jokatu dituzte. Intxurreko pilotariak infantil, kadete, jubenil eta nagusi mailetan ariko dira, eta herri bakoitzean launa partida izango dira jokoan.



**TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA**

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

**FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA**

Tel.: 943 67 36 29

www.inmakuladatolosa.com

XIV Orduak →

Tolosarrak fruitu dendako erakuslelhoa proba urte askorekin egin dutenen irudiekin apaindu du aurten. JOXEMI SAIZAR

Miguel Angel Bermudez tolosarrak 1967an egin zuen lehen aldiz, XIV Orduak ibilaldia Miguel Pelu Garcia eta Inaxio Koeti Zuriarrain lagunekin. Proba oso ondo ezagutzen du, ez bakarrik parte hartzaile moduan, baita fruitu eta barazki hornitzaile gisa ere.

Bermudez, mendizaletasunaren ilusioa

Joxemi Saizar Tolosa

Miguel Angel Bermudez (Tolosa, 1949) ezaguna da Tolosaldean bere lanbideagatik (fruitu saltzailea) eta bere inauterizaletasunagatik, batez ere. Baina mendizaletasuna ere afizio handienetakoa izan du bere bizitzan zehar eta XIV Orduak probarekin harreman handia izan du, parte-hartzaile gisa eta fruitu zein barazki hornitzaile gisa.

Lagunartean hasi zen Bermudez mendira joaten. Berehala Alpino Uzturre mendi elkarrean sartu eta hasi ziren mendi eta eskalatzeko irteerak egiten. Pirinioetara egindako autobus irteerak gogoan ditu, lehen hiru milakoak orduan egin baitzituen. Emaztea ere (Mari Karmen Etxedona, eskalatzeko hil zen Angelen arreba) Alpinon ezagutu zuen: «Orduan mendi taldeak ezkontza bulegoak

ziren». Eskalatzeko berriz, gero Naranco de Bulnesen hil ziren Ramon Ortiz eta Patxi Berrio, *Jaito* Azpiroz, Juan Antonio *Tatxuela* edo *Remache* Navas, Sagredo, Javier Miralles... izan zituen lagun.

Lehen XIV Orduak ibilaldia 1967an egin zuen Miguel Pelu Garcia eta Inaxio Koeti Zuriarrain lagunekin. «Elkarrekin ibiltzen ginen asko. Pelu zaldia bezalakoa zen mendian. Leaburuko aldapa errespetatzen zuen. San Sebastian ermitatik aurrera erretzen hasten zen», dio. Koeti hil zenean Ina Alberdirekin hasi zen mendian ibiltzen. Hainbat edizioetan atera izan da eta beste batzuetan, jaunartzeak eta tokatu zaizkionean, aurreko edo ondorengo asteburuetan egin izan du. Azkena 2000n egin zuen, alabekin. «Seme-alabak oso gazterik atera ziren nirekin, 15 urterekin eta», aipatu du. Ibilaldia prestatzeko, proba bi zatitan edo ibilaldiaren

zati desberdinak egiten zituztela nabarmendu du.

«Ibilaldi hau berezia da, normaletik kanpo ateratzen da. Horregatik du arrakasta. Mendizale ez den jende asko erakartzen du, erdia baino gehiago halakoa dela esango nuke», aipatu du. Gero eta asfalto eta zementu gehiago dela esaten du, hasierako edizioekin konparatuta, horregatik mendi zatiak ditu gustukoak: Ata harana, Musai, Aralar, Uli... Antolakuntzak korri egiten duen jendea geldiarazi beharko lukeela uste du, «lehen orduak oso garrantzitsuak direlako eta haiek ikusita besteek gehiago behartu eta sufritu egiten dutelako».

Fruitu eta barazki hornitzaile

Fruitu eta barazki hornitzaile gisa hasi zen 70eko hamarkadan eta hala jarraitzen du. «Alaba txikiak zirela joaten nintzen furgoneta hartuta, kanpin mahai txiki batean laranjak eta tomateak ja-

rriz. 1984ean hotz handia egin zuen. Eskuak limoiarengatik zartatuta bukatu nuen», gogoratzen du Mari Karmen Etxedona emazteak. Orduan launa kutzarekin nahikoa omen zen, jende gutxi izaten zelako. «Beti esaten diet antolatzaileei janari gutxiago eman behar dutela, mendizaleak behar duena motxilan eman behar duela beti, baina nire errua dela erantzuten didate, ni hasi nintzelako ematen», aitortu du mendizaleak.

«Behin botatako fruitu azalak eta jasotzen ari ginela, bukaeran, Gurutze Gorrikoek ere alde egin da, ahotsak entzun genituen. Bizkaitar batzuk ziren, erdi galduta eta ez zuten Aralar ezagutzen. Eskerrak han aurkitu gintuzten. Bati zapatilak utzi, besteari galtzerdiak... Oinutsik etorri nintzen kotxea gidatzen», dio emazteak. «Kanpotik atera zen lehena katalan bat izan zen, Sant Cugat del Valleskoa. Dendan azaldu

zen galdezka larunbat batean, erakuslelhoan argazkiak eta ikusita. Gure etxean egin zuen lo, Anoetan bizi ginela eta etxea hantzez gora genuela obretan geundelako, eta atera zen ibilaldian», gogoratu dute biak.

Lau urtez behin, proba iristen denean bere fruitu dendako erakuslelhoa argazki eta bestelako motiboekin apaintzea gustatzen zaio. «Aurten urte askorekin egin duen jendea izan dut gogoan: Xebe Peña, Joxe Albero, Ines Lasa... Eta gazteak ere bai, nire seme-alabak eta lagunak», dio.

Jarraitzen du mendira joaten eta udan Pirinioetara. «Piedrafittako babeslekukoekin harreman handia dugu, gure laguna Ramon inguruan hil zenetik, batez ere. Askok lagundu ziguten orduan», dio. «Proban ateratzeko txirridua neukan, baina 5-6 orduz ondo ibiltzen naiz eta belaua gehiago behartzen badut kalterako izan daiteke», bukatu du.



hitzak hitza



Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Maiatzak 20 · Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket
saskibalo partida



Ekitaldiz beteko da Leitza, Kultur Aroan

Iñigo Terradillos Leitza

Bihar hasiko dute Leitzan Kultur Aroa. Leitzako kultur taldeak 35. urtez antolatutako duen ekimenari esker, hilaren 27ra arte egunero kultur jarduerak izango dira. Aspetebeteko atsedenaldiraren ondoren, ekaineko lehen astean jarraituko dute ekitaldiek. Hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, tailerrak, an-

tzezlanak, kontzertuak, azoka, erakusketak... askotariko eta adin guztiei zuzendutako ekitaldiek osatuko dute egitaraua.

Ekitaldi guztien artean «handiena» maiatzaren 27ko azoka da, antolatzaileen esanetan. Aurten goa 34. azoka izango da, eta inoizko parte hartzaile kopururik handiena izango du, 64 postu egongo baitira.

Bestalde, aurtengoan nabarmendu nahi duten beste ekitaldia, txondorra piztea da. «Aspaldiko ohitura berreskuratu nahi izan dugu; inguruko herrietan egin dute, Goizuetan, esaterako, eta haien aholkuei jarraituz, aurtengo proba moduan egingo dugu», azaldu du Juan Mari Barriola kultur elkarteak kideak.

Urteko ekimen «garrantzitsuen» izan ohi da Kultur Aroa. «Elkarlanean osatzen ditugu ekitaldiak herriarren proposamenak kontuan hartuz, eta herriar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera», esan du Barriolak.



Sagardo egunak jende ugari erakarri ohi du. Irudian, izazko une bat. A. IMAZ

↓ Egitaraua

MAIATZAK 18, OSTIRALA

■ **20:00.** *Hitanoa eta generoa gaur egun* hitzaldia Ritxi Lizartzaren eskutik, Aurreran.

MAIATZAK 19, LARUNBATA

■ **Goizean.** Txirindula eta eskalatea haurrentzat.

MAIATZAK 20, IGANDEA

■ **12:00.** Organo kontzertua Josu Larunbe eta Raul del Toro-ren ikasleekin, elizan.
■ **19:00.** *Hil arte biziantzez* lana, zinean.

MAIATZAK 21, ASTELEHENA

■ **20:00.** Sonia Mendez eta

Irantzu Eskuderoekin sexualitate tailerra, Atekabeltzen.

MAIATZAK 22, ASTEARTEA

■ **19:30.** Joxe Mari Sestorainek itzuli duen *Marta maitea* liburua aurkeztu, liburutegian.

MAIATZAK 23, ASTEAZKENA

■ **20:00.** *Sorginen ehiza* Amaia Nausiaren hitzaldia, 20:00etan, Atekabeltzen.

MAIATZAK 24, OSTEGUNA

■ **10:00.** *1512ko konkista euskaldunon historian* Beñi Agirre-ren hitzaldia, institutuan.
■ **20:00.** *Nora goaz? Biharko*

gizarteaz, etorkizuneko bizimoduaz Joseba Azkarragaren hitzaldia, Aurreran.

MAIATZAK 25, OSTIRALA

■ **12:00.** La Jodederaren kontzertua, Torrean.
■ **17:30.** Erleta eskolako haurren dantza eta antzerki emanaldia, Josune Zabala eta Ione Gorostartzuk zuzenduta, zinean.
■ **20:00.** *Gran Paradiso Mendia*. Xabier Kanposen proiektzioa, Atekabeltzen.
■ **20:00.** Lopenea aurreko elkartasun ekitaldia, Lopenean.

MAIATZAK 26, LARUNBATA

■ **07:30.** Donostia-Orio mendi irteera. Irteera Leitzako plazatik.

Txistularien eguna.

■ **10:00.** Harrera, plazan.
■ **10:15.** Kalejira, auzoetan.
■ **11:00.** Gosaria, elkartean.
■ **12:30.** Kalejira nagusia.
■ **13:00.** Ingurutxo, plazan.
■ **14:00.** Bazkaria, Atekabeltzen.
■ **18:00.** Kale animazioa

MAIATZAK 27, IGANDEA

Azoka eguna.
■ **11:00-19:00.** Plazan.

EKAINAK 4, ASTELEHENA

■ **18:00.** Txondorra biztea, Ixki-barren.

EKAINAK 5, 6 ETA 7

■ **20:00.** I. Mendia, Kirola eta

Abenturaren Zinemaldia, Peritzan.

EKAINAK 8, OSTIRALA

■ **20:00.** Hitzaldia, Aurreran.

EKAINAK 9, LARUNBATA

■ **19:00.** IV. Sagardo eguna, plazan.

ERAKUSKETAK

■ **Aurreran.** Gran Paradiso argazkiak eta zeramika lanak.
■ **Atekabeltzen.** Saharar herriaren inguruko argazkiak eta Roberto Martinezen margolanak.
■ **Udaletxean.** Leitzarrek idatzitako liburuak, azoka egunean.

Irudia ◊ Belauntza-Gaztelu

SAN ISIDRO EGUN «POLITA»

Belauntzan eta Gaztelun base-ritarren eguna gogoan izan zuten herenegun. Belauntzan, San Juan elizan izandako mezarekin hasi zuten ospakizuna, eta ondoren 22 herritar bildu ziren herriko tabernan bazkaltzeko. Gaztelun, berriz, Erroizpe azpiko elkartearen izan ziren herritarrek askaria hartzeko. HITZA



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Nafarroako Estatu Gogoan ekimenaren barruan, gaur, 19:30ean, Pello Monteañoren *La guerra de Navarra, crónica de la conquista española* hitzaldia, udaletxeko pleno aretoan.
- **Zizurkil.** Maiatza Saltsaren barruan, gaur, 19:30ean, Zizurkilgo armariari buruzko hitzaldia, Atxulondo kultur etxean. Aranzadi zientzia elkarterko Juantxo Agirre Mauleonek emango du hitzaldia.
- **Ibarraldea.** Ibarra Zero Zabor taldeak antolatuta, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideek hitzaldia eskainiko dute, gaur, 19:00etan, kultur etxean. *Zero Zabor: posible al da atez ateorik gabe?* izenburupean, euskaraz. Aurre-rago gaztelaniaz eskainiko dute.
- **Alkiza.** 0-4 urte bitarteko haur-erentzat ipuin kontalaria gaur, 17:00etan, liburutegian. Saioa hasita ezingo da barrura sartu.
- **Anoeta.** Udalak batzarra deitu du gaurko, hondakin kudeaketari buruz hitz egiteko. 19:00etan elkartuko dira udal-etxeko bilkura aretoan.

- **Ibarraldea.** Bai Euskal Herriari herri ekimenak eta Haitzetan Raju menditalkoak egun pasa antolatuta dute ekainaren 10erako. Ibarra- Larte-Uli-Gaztelu bidea egingo dute, eta 09:00etan irten-go dira Ibarra plazaetik. Izena *facebook* bidez, edota Zubiaburri, Atari eta Subegi tabernetan eman daiteke.
- **Ibarraldea.** Langostino moto elkarrekin irteera antolatu du hilaren 26 eta 27rako. Ibarrik Gasteizera norabidea hartuko dute, eta Acedoko kanpenean geldialdia egingo dute hamaitakoa egiteko. Bazkaria Anoeta egingo dute. Izena emateko *langostinomotoafesta@gmail.com* helbidera idatzi behar da.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Palestinari buruzko erakusketak ikusi daitezke kultur etxean, hilaren 20a arte.
- **Ibarraldea.** Aurki estreinatuko duten *Sua* filmeko argazkiak ikusi daitezke ostirala bitarte, kultur etxean. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara ikusi daitezke.

Agurrak



Urte askoan Emilio!

Emilio Salaberria Etxebeste (Amasa-Villabona). Eutsi gogor umore horri! Osasuna ta askatasuna! Maite zaituztegu! Gora Villabonako ttikia!



Urte askoan!

Iker Aginaga (Villabona).

Gaur 9 urte.

Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarraldea.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I.

Aralar kalea, 25.
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



tolosaldea.hitza.info webgunean, XIV Orduak probaren atalean,

ibilbidearekin zerikusia duten albisteak dituzu eskuragarri: elkarrizketak, probaren xehetasunak, aholkuak...

■ **Maiatzaren 23an gehigarri berezia** argitaratuko dugu HITZArekin batera; antolatzaileen hitzak, medikuen aholkuak, ibilbidearen nondik-norakoak, garai bateko argazkiak...

■ **Maiatzaren 27an**, XIV orduen egunean, **HITZAK presentzia berezia izango du;**
... egunean zehar webgunean eta sare sozialetan ibilbidearen berri emango du momentuoro.
... San Migelen bertan presentzia izango du.
... gauean, proban parte hartu duten guztien argazkiak zintzilikatuko ditu webgunean, nahi duenak eskuratu ditzan.



■ **Maiatzaren 28an**, astelehenean, bezperako probaren inguruko **ale berezia** argitaratu eta banatuko du HITZAK eskualde guztian.